

BAI EUSKARARI AKORDIOA AZPEITIAN
AZPEITIKO UDALA eta KONTSEILUAREN arteko Lankidetzaren Hitzarmena

Azpeitian, 2008ko martxoaren 7an

alde batetik AZPEITIKO UDALA,
helbidea: Enparantza Nagusia z/g 20730 AZPEITIA
I.F.K.: P2001900F
eta beronen izenean Iñaki Errazkin Vitoria N.A. Zk: 72445782-Z

eta bestetik, EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA,
helbidea: Martin Ugalde Kultur Parkea z/g 20140 Andoain
I.F.K. G-20620217
eta beronen izenean Xabier Mendiguren Bereziartu N.A. Zk: 72310119

elkarri behar den gaitasuna onartzen diote eta LANKIDETZA HITZARMEN hau sinatzen dute, eta horretarako

ADIERAZTEN DUTE

2003 urtean, Azpeitiko euskalgintzak eta KONTSEILUAK abian jarri zutela Bai Euskarari Akordio eta Konpromiso Prozesua.

Lankidetzaren horri jarraipena emanaz, Azpeitiko Udalak, bertako euskalgintzak eta KONTSEILUAK Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren eta Bai Euskarari Akordioaren arteko uztarketa egiteko akordio bat sinatu zuten.

Prozesua berrartu asmoz, Udalak eta KONTSEILUAK onuragarritzat jotzen dute bien arteko lankidetzaren hitzarmen batean jasotzea, ondoren zehazten diren akordioaren arabera.

AKORDIOAK

Lehena.- KONTSEILUAK dokumentu honen eranskinean zehaztasunez deskribatzen diren lanak eta zerbitzuak beteko ditu. Eranskin hau, bi aldeek sinatu ondoren, hitzarmen honen zati izango da.

Bigarrena.- AZPEITIKO UDALAK **1.740€** esleituko ditu Kontseiluaren aholkularitza lana ordaintzeko.

Hirugarrena.- KONTSEILUAK lana egiteko aurreikusten duen denbora **30** ordukoa da. KONTSEILUAK bere teknikariek dedikatutako lan orduen kontrol zehatza eramango du.

Laugarrena.- Lan orduaren prezioa 50€ + BEZ da. Fakturatu eta ordaintzeko modua bi aldeek adostutakoa izango da eta dokumentu honen eranskinean zehaztuko da.

Bosgarrena.- Bi aldeen arteko desadostasun arrazoituren bat emango balitz, hitzarmen hau eten egingo litzateke.

Kontratutik sortzen diren auziak Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpon daitezke, indarrean dagoen legedian zehaztutakoarekin bat etorritik.

Seigarrena.- Hitzarmenak urtebeteko iraupena izango du sinatzen den egunetik aurrera. Hala ere, luzatutzat joko da urtero, alde izenpetzaileek hitzarmenari eusteko oniritzia ematen badute.

KONTSEILUaren izenean:

AZPEITIKO Udalaren izenean:

Xabier Mendiguren Bereziartu
Kontseiluko Idazkari Nagusia

Iñaki Errazkin Vitoria
Azpeitiko Udaleko Alkatea